

2. Atala:

- Ni ere ez nago guztiz lasai, Maia. – onartu zuen Lurrek – Gure etxola hau ez da uste genuena besteko sendoa ere.

Hiru lagunek eraikitako etxolan ura sartzen hasi zen eta urruneko oineztuak gero eta gertuago sumatzen zituzten. Zer egin ez zekitela egon ziren une batez baina erabakiren bat hartu beharra zeukaten.

- Hara! Begira katu hori ere korrika! – Ilargik ekaitzetik urrundu nahian zihoan animalia seinalatu zuen – Hobe izango dugu guk ere aterpe sendogoren bat bilatu!

Ilargi, Lur eta Maia kontu handiz jaitsi ziren etxolatik eta korrika hasi ziren. Hasieran, herrira jaisten saiatu ziren baina haizea zakar-zakar zebilen eta besterik ezinean, basora sartu behar izan zuten arineketan, ikusi berria zuten katuak hartutako bide beretik.

Etxola begien bistatik ia galdua zutenean... BRUUUMMM!!! Tximista beldurgarri batek kolpatu zuen haritza.

- AMAAAA!!! – Lur eta Maia zeharo larrituta zeuden. Gutxi falta izan zen tximistargi hark beraiek ere kolpatzeko.

- Hobe izango dugu gure etxeko abarora jo! – Ilargiren aurpegiak ez zuen konbentzitu itxurarik baina basoko bidexkatan barrena gidatu zituen bere lagunak.

Bidean aurreraxeago, lehen ikusitako katua topatu zuen Maiak, beldurtuta, zuhaitz baten azpian bil-bil eginda. Bere beldur bera partekatzeko zuela ikustean lasaitu egin zuen neskatila eta jaso egin zuen.

Euria indarra galtzen hasi zen eta ekaitza urrunago entzuten zen. Basoko soilgune batera heldu ziren gure lagunak. Baina han ikusi zutenak zur eta lur utzi zituen Maia eta Lur!

- Non demontre ibili zara Ilargi! Hamaika aldiz esan dizut abisatu gabe etxetik ez aldentzeko!

- Kaixo ama... - erantzun zuen Ilargi burumakur.

